Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza

Programa:

5414 Berrikuntzarako Funtsa

Helburua:

Sailak sustatutako programak eta proiektuak ezartzea lehenetsuneko jardueraren eremuan (L4. STEAM Estrategia eta ikasmaterialak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak).

Ekintzak:

Itunpeko ikastetxeetan STEAM (Science, Technology, Engineering, Art & Mathematics) ereduko hezkuntzarako berrikuntza-proiektuak gauzatzea.

Adierazleak:

STEAM ereduko hezkuntzarako berrikuntza-proiektuak itunpeko ikastetxeetan: 89 ikastetxe.

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024	2025
4	280.000 €	70.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuak, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Batxilergoa ematen dutenak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntza**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 13:**

Pentsamendu kritikoa, hausnarketa eta pentsamendu filosofikoa sustatzea, bigarren hezkuntzako ikasleen trebetasun kognitiboak eta sozialak garatzeko funtsezko tresna gisa.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Dirulaguntza izenduna Agora Elkarte Filosofikoari, XI.a finantzatzen laguntzeko. Olinpiada Filosofikoaren amaiera Estatuan.

Organoa:

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza

Programa:

4225 Hezkuntza Berritzea eta Irakasleak Etengabe Prestatzea

Helburua:

Filosofia hezkuntza-curriculumean zeharkako diziplina gisa sar dadin sustatzea. Olinpiada filosofikoaren integrazioa sustatzea, esparruka lan egiteko tresna didaktiko gisa, ikasleen trebetasun kognitiboen eta sozialen garapena sustatzeko.

Ekintzak:

Bilbon Olinpiada Filosofikoaren Estatuko XI. Finala antolatzea.

Adierazleak:

Ikasle parte-hartzaileak.

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	10.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

EAEko Bigarren Hezkuntzako ikasleak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntza**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 14:**

Beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea, gure hezkuntza-sistema hobetzeko eta lanbide-hobekuntzarako.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Dirulaguntza izenduna Hik Hasi Euskal Hezkuntzarako Elkarteari, Hik Hasi udako topaketa pedagogikoen gastuak finantzatzen laguntzeko.

Organoa:

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza

Programa:

4225 Hezkuntza Berritzea eta Irakasleak Etengabe Prestatzea

Helburua:

Irakasleek rol aktiboa hartzea ikaskuntza-prozesuan, eta haien lidergoa irakasten duten eremuaren, arloaren edo irakasgaiaren ezagutza adituan oinarritzea, baita aplikatzen dituzten trebetasun didaktiko eta metodologiko koherenteetan ere.

Ikaskuntza partekatura edo ikaskuntza autonomora bideratutako jardueren gidari, orientatzaile edo estimulatzaile gisa jardun izatea, bai eta talde-lanerako edo elkarlanerako, edo ikasleen garapen integralari eraginkortasunez laguntzen dion beste edozein irakaskuntza- eta ikaskuntza-modalitaterako ere.

Ekintzak:

Hik Hasi Egitasmo Pedagogikoak hogeita hiru garren urtez ohiko Udako Topaketa Pedagogikoak antolatu EHUren Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultatearekin elkarlanean.

Adierazleak:

Topaketa pedagogikoen ikastaroen kopurua: 28.

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	37.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

EAEko hezkuntzako komunitatea.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntza**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 15:**

Euskal gizartearen erronka nagusiei buruzko hausnarketa sustatzea, lankidetzan hezkuntza-lehentasunak identifikatzea eta etorkizuneko eszenatoki desiragarriak definitzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Dirulaguntza izenduna Eusko Ikaskuntzari.

Organoa:

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza

Programa:

4225 Hezkuntza Berritzea eta Irakasleak Etengabe Prestatzea

Helburua:

Herritarrek, hezkuntza-eragileek, erakundeek eta adituek elkarrekin hausnartzea etorkizuneko erronkei buruz.

Ekintzak:

Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos erakundeari dirulaguntza ematea, adituen foroa antolatzeke.

Adierazleak:

Parte-hartzaileen ekarpenak.

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	40.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Herritarrak, gizarte-eragileak, adituak eta erakundeak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Ikaskuntza eta Hezkuntza Berrikuntza**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 16:**

Hezkuntza sustatzea eta zabaltzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Dirulaguntza Unesco-Etxeari, hezkuntzaren arloan baterako jarduerak garatzeko.

Organoa:

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza

Programa:

4231 Hezkuntza Sustapena

Helburuak:

Hezkuntza-arloko baterako lankidetzeta-jarduerak garatzea.

Ekintzak:

Unesco-Etxea erakundearen jarduerak finantzatzea.

Adierazleak:

Lagundutako erakundeen kopurua: 1

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	36.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Irabazi-asmorik gabeko erakundea.

Emateko prozedura:

Agindua

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntza**Ámbito temporal:** 2024**Helburu Estrategikoa 17:**

ESKOLA 4.0 (Eskola Adimentsua): Pentsamendu konputazionala, robotika eta programazioa bultzatzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Indarrean dagoen hezkuntza-ituna duten Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako federazio eta elkarteei zuzeneko dirulaguntzak ematea, Eskola Adimentsua programan parte hartu ahal izateko.

Organoa:

Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza

Programa:

4221 Haur eta Lehen Hezkuntza

Helburuak:

Hezkuntza-curriculum berriak programazioa, pentsamendu konputazionala eta robotika sartzen ditu unibertsitateaz kanpoko hezkuntza-maila guztietan, esparru zabalagoko zenbait irakasgairen zati gisa. Programa hau Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako 2022-2024 Planaren barruan sartzen da.

Ekintzak:

Digitalizazioa, pentsamendu konputazionala, programazioa eta robotika bultzatzea beren sareari lotutako itunpeko ikastetxe pribatuetan.

Adierazleak:

Ikastetxe itunduek, beren beharren eta plangintzaren arabera, programaziorako eta robotikarako ekipamendua hornitzeko finantziazioa jasotzen dute.

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	4221 Prog	4222 Prog	2024
7	982.350 €	1.110.150 €	2.092.500 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Itunpeko ikastetxe pribatuekin estatutu- edo erregelamendu-harremanak dituzten elkarteak/federazioak.

Emateko prozedura:

Gobernu Kontseiluaren akordioa.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Ikastetxe eta Plangintza**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 1:**

Bokazio zientifikoak eta bokazio artistikoak bultzatzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Udal titulartasuneko musika-ikastetxeentzako dirulaguntzen deialdia.

Organoa:

Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza

Programa:

4224 Araubide bereziko irakaskuntzak

Helburuak:

Irakaskuntza artistikoko eskaerei erantzuna eman eta ikasleei kalitatezko irakaskuntza eskaini, irakaskuntza horren gizarte-transferentzia sustatuz.

Ekintzak:

Udal-titulartasuneko Musika-eskolen eta Kontserbatorio Profesionalen finantziario partziala, dirulaguntzen deialdi baten bidez.

Adierazleak:

- Udal-titulartasuna daukaten zentroen batezbesteko finantziarioa: %33
- Zentro kopurua: 49
- Irakasleak: 1.000
- Ez Irakasleak: 200
- Ikasle ofizialak: 21.500

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	13.600.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Udal titulartasuneko Musika-eskolak eta Kontserbatorio Profesionalak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Ikastetxe eta Plangintza**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 1:**

Bokazio zientifikoak eta artistikoak bultzatzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 2:

Titulartasun pribatuko musika-ikastetxeentzako dirulaguntzen deialdia (udalen finantzaketarekin, eta udalen finantzaketarik gabe).

Organoa:

Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza

Programa:

4224 Araubide bereziko irakaskuntzak

Helburuak:

Irakaskuntza artistikoko eskaerei erantzuna eman, ikasleei kalitatezko irakaskuntza eskaini eta irakaskuntza horren gizarte-transferentzia sustatzea.

Ekintzak:

Musika-eskola pribatuen eta Musikako Ikastetxe Baimendu Profesionalen finantziazio partziala, dirulaguntzen deialdi publikoaren bidez.

Adierazleak:

- Titulartasun pribatua daukaten zentroyen batezbesteko finantziazioa: %22
- Zentro kopurua: 46
- Irakasleak: 650
- Ez Irakasleak: 100
- Ikasle ofizialak: 12.000

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	2.728.810 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Musika-eskola pribatuak eta Musikako Zentro Baimendu Profesionalak

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Ikastetxe eta Plangintza**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 1:**

Bokazio zientifikoak eta bokazio artistikoak bultzatzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 3:

Dirulaguntza izenduna "ARGI ARTE" Arte Plastikoen eta Diseinuaren Zentroari.

Organoa:

Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza

Programa:

4224 Araubide bereziko irakaskuntzak

Helburuak:

Irakaskuntza artistikoko eskaerei erantzuna eman, ikasleei kalitatezko irakaskuntza eskaini eta irakaskuntza horren gizarte-transferentzia sustatzea.

Ekintzak:

"ARGI ARTE" Arte Plastikokoetako eta Diseinuko Baimendutako Zentroko langileen gastuak finantziario partziala.

Adierazleak:

- Lagundutako erakundeen kopurua: 1
- Ikasleak: 81
- Irakasleak: 10
- Irakasle ez diren langileak: 2

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	36.552 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Eusko Jaurlaritzak baimendutako ikastetxea.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Ikastetxe eta Plangintza**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 1:**

Bokazio zientifikoak eta artistikoak bultzatzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 4:

Dirulaguntza izenduna "José Uruñuela" udalaren titulartasuneko dantzako oinarrizko irakaskuntzen eta irakaskuntza profesionalen kontserbatorioari.

Organoa:

Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza

Programa:

4224 Araubide bereziko irakaskuntzak

Helburuak:

Irakaskuntza artistikoko eskaerei erantzuna eman eta ikasleei kalitatezko irakaskuntza eskaini, irakaskuntza horren gizarte-transferentzia sustatuz.

Ekintzak:

"José Uruñuela" udal-titulartasuneko oinarrizko eta profesionaleko Dantza-irakaskuntzen Kontserbatorioak izandako gastuen finantziario partziala.

Adierazleak:

- Lagundutako erakundeen kopurua: 1
- Irakasleak: 19
- Irakasle ez diren langileak: 4
- Ikasleak: 104

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	250.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Eusko Jaurlaritzak baimendutako ikastetxea.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Ikastetxe eta Plangintza**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 1:**

Bokazio zientifikoak eta bokazio artistikoak bultzatzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 5:

Dirulaguntza izenduna Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteari (EHME).

Organoa:

Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza

Programa:

4224 Araubide bereziko irakaskuntzak

Helburuak:

Irakaskuntza artistikoko eskaerei erantzuna eman eta ikasleei kalitatezko irakaskuntza eskaini, irakaskuntza horren gizarte-transferentzia sustatuz.

Ekintzak:

Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartearen (EHME) gastuen finantziazio partziala.

Adierazleak:

Lagundutako erakundeen kopurua: 1

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	58.110 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Musika-irakaskuntza ez-arautuko ikastetxeak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Ikastetxe eta Plangintza**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 1:**

Bokazio zientifikoak eta bokazio artistikoak bultzatzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 6:

Musikaldia 2024ko gastuen finantziario partziala

Organoa:

Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza.

Programa:

4224 Araubide bereziko irakaskuntzak.

Helburua:

Irakaskuntza artistikoko eskaerei erantzuna eman, ikasleei kalitatezko irakaskuntza eskaini eta irakaskuntza horren gizarte-transferentzia sustatzea.

Ekintzak:

Tolosan ospatuko den Musikaldia 2024ko gastuen finantziario partziala, dirulaguntza izendunaren bidez.

Adierazleak:

- Lagundutako erakundeen kopurua: 1

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	26.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Tolosako udala.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Ikastetxe eta Plangintza**Epea:** 2024-2025**Helburu Estrategikoa 2:**

Ikasleei kalitatezko irakaskuntza eskaintzea, beren gaitasun pertsonalak garatzeko eta sare publikoan hezkuntza-etapa horiekin bat datozen ezagutzak eta gaitasunak eskuratzeko.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikasleak eskolatzeko.

Organoa:

Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza

Programa:

4221 Haur eta Lehen Hezkuntza

Helburuak:

Udal-erakundeekin lankidetzan aritzea, 0-3 urteko ikasleak eskolatzeko.

Ekintzak:

Udal-titulartasuneko haur-eskola publikoen finantzaketan parte hartzea 0-3 urteko etapan.

Adierazleak:

Udaletxeen kopurua: 11

Ikasleen kopurua: 950

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	3.500.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Udal titulartasuneko Haur Hezkuntzako lehen zikloko eskolak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Ikastetxe eta Plangintza**Epea:** 2024-2025**Helburu Estrategikoa 3:**

Titulartasun pribatua duten 0-3 urte bitarteko haur-eskolak finantzatzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikasleak eskolatzea.

Organoa:

Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza

Programa:

4221 Haur eta Lehen Hezkuntza

Helburuak:

- Titulartasun pribatuko 0-3 urteko haur-hezkuntzako eskolak mantentzeko gastuan laguntzea.
- Familien kuotak murriztea eta homogeneizatzea.
- Familia eta lana uztartzen lagunduko duen zerbitzu zabala eskaintzea.
- Dagoen eskaintza finkatzea.

Ekintzak:

Titulartasun pribatuko 0-3 urteko haur-eskolak finantzatzea.

Adierazleak:

Ikastetxeen kopurua: 200

Ikasleen kopurua: 5.500

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	17.525.126 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Titulartasun pribatuko Haur Hezkuntzako lehen zikloko haur-eskolak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Ikastetxe eta Plangintza**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 4:**

Gurasoen lankidetzaren eskola-sisteman sustatzea eta bultzatzea, dagozkien elkarte, federazio, konfederazio eta kooperatiben bitartez.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Dirulaguntzak Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleen elkarreentzako eta unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleen guraso-elkarreentzako.

Organoa:

Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza

Programa:

4231 Hezkuntza sustapena

Helburuak:

Gurasoen parte-hartze eta lankidetzaren ikastetxeetan sustatzea, dagozkien elkarten, konfederazio eta kooperatiben bitartez.

Ekintzak:

Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleen elkarreentzako eta unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleen guraso-elkarreentzako zuzendutako dirulaguntzen deialdia.

Adierazleak:

Diruz lagundutako elkarteak: 483

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	500.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Helduen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleen elkarreentzako eta unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleen guraso-elkarreentzako.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Ikastetxe eta Plangintza**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 4:**

Gurasoen lankidetzaren eskola-sisteman sustatzea eta bultzatzea, dagozkien elkarte, federazio, konfederazio eta kooperatiben bitartez.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 2:

Unibertsitatez kanpoko ikasleen gurasoen elkartetako federazio eta konfederazioentzako laguntzak.

Organoa:

Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza

Programa:

4231 Hezkuntza sustapena

Helburuak:

Gurasoen parte-hartze eta lankidetzaren ikastetxeetan sustatzea, dagozkien elkarte, federazio, konfederazio eta kooperatiben bitartez.

Ekintzak:

Federazio eta konfederazioen funtzionamenduan eta azpiegituran laguntzea.

Adierazleak:

Federazioak eta konfederazioak: 12

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	350.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Unibertsitate-mailakoak ez diren ikastetxeetako ikasleen guraso-elkarteen federazioak eta konfederazioak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Ikastetxe eta Plangintza**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 4:**

Gurasoen lankidetzaren eskola-sisteman sustatzea eta bultzatzea, dagozkien elkarte, federazio, konfederazio eta kooperatiben bitartez.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 3:

Unibertsitateaz besteko irakaskuntza-kooperatibentzako dirulaguntzak.

Organoa:

Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza

Programa:

4231 Hezkuntza sustapena

Helburuak:

Familien ikastetxeetan parte-hartzea eta lankidetzaren sustatzea, dagozkien elkarte, federazio, konfederazio eta kooperatiben bitartez.

Ekintzak:

Irakaskuntza-kooperatiben funtzionamenduan eta azpiegituran laguntzea.

Adierazleak:

Diruz lagundutako kooperatiben kopurua: 42

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	33.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Unibertsitateaz besteko irakaskuntza-kooperatibak

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Ikastetxe eta Plangintza**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 5:**

Hezkuntzaren bikaintasuna sustatzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Batxilergoko Sari Berezien deialdia.

Organoa:

Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza

Programa:

4231 Hezkuntza sustapena

Helburuak:

Batxilergoan bikaintasuna eta talentua bilatzeko ibilbide akademiko bikaina egin duten ikasleen ahalegina eta dedikazioa aitortzea eta sustatzea, gizakiaren esparru guztietan.

Ekintzak:

1.235 euroko dirulaguntza, Batxilergoko Sari Bereziaren 16 irabazleei

Adierazleak:

Batxilergoko Sari Berezi bat ikasturte honetan Batxilergoko bigarren mailan matrikulatutako mila ikasleko edo bostehunetik gorako frakzioko. (15.514 ikasle, 16 sari).

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
7	19.760 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Batxilergoko bigarren mailako ikasleei zuzenduta.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza Sailburuordetza**Zuzendaritza:** Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza**Epea:** 2024-2025**Helburu Estrategikoa 6:**

Titulartasun publikoko Haur Hezkuntzako Lehen Zikloko plazak sortzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

0-3 urteko plazak sortzeko lehia askeko deialdia

Organoa:

Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza

Programa:

1228 Berreskuratze eta erresilientzia mekanismoa

Helburua:

Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren C21.I1 - Titulartasun publikoko Haur Hezkuntzako lehen zikloko plazak sortzea (lehentasunez 1 eta 2 urte) azpiproiektuan parte hartzeagatik eratorritako gastuak ordaintzea.

Ekintzak:

0 eta 3 urte bitarteko plazak sortzen dituzten Haurreskoletako azpiegitura-gastuak finantzatzea.

Adierazleak:

Udalei laguntzak ematea.

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
7	10.000.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Toki-Erakundeak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Aniztasuna eta Hezkuntza Inklusioa**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 1:**

Ikasle sartu berriei arreta emateko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak ematea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Itunpeko sareko Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan hizkuntza-errefortzua finantzatzea.

Organoa:

Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza

Programa:

4221 Haur eta Lehen Hezkuntza

4222 Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa

Helburuak:

Ikasle guztien eskola-arrakasta sustatzea, laguntza- eta indartze-programen bidez.

Ekintzak:

Ikasle hasi berrien hizkuntza indartzeko programak.

Adierazleak:

Itunpeko sareko Hizkuntza Indartzeko Programaren laguntza duten ikastetxe-kopurua:

- Lehen Hezkuntza soilik duten itunpeko ikastetxeak: 5
- Bigarren Hezkuntza soilik duten itunpeko ikastetxeak: 4
- Udal titulartasuneko ikastetxeak: 1
- Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza dituzten ikastetxeak: 116
- Itunpeko ikastetxeak guztira: 126
- Ikasle hasi berrien kopurua: 2.512

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	4221 Prog	4222 Prog	2024
4	1.219.965 €	1.480.035 €	2.700.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Lehen edo/eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan itundutako unitateak dituzten ikastetxe pribatuak eta Oinarrizko Lanbide Heziketako prestakuntza emateagatik Hezkuntza Saileko dirulaguntzak jasotzen dituzten ikastetxeak, pribatuak zein udal titulartasunekoak. Ikastetxe horiek guztiek Euskal Autonomia Erkidegoan egon behar dute.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Aniztasuna eta Hezkuntza Inklusioa**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 2:**

Adimen-desgaitasuna duten pertsonen laneratzea eta gizarteratzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

ATZEGIekin hitzarmena, desgaitasun intelektuala duten pertsonak ikastetxeetan laneratzeko eta gizarteratzeko.

Organoa:

Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza

Programa:

4222 Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa

Helburuak:

Programa pilotu bat abian jartzea, desgaitasun intelektuala duten pertsonen laneratzea ahalbidetzeko hezkuntza-arloan, lan-araubide mugagabeko lan-kontratuen bidez eta soldata duina nahiz Gizarte Segurantzako kotizazioa bermatuta.

Ekintzak:

Desgaitasun intelektuala duten pertsonak hautatzea Gipuzkoako zentroetan kopiagintzako eta dokumentu-kudeaketako zerbitzu osagarriak emateko.

Pertsona horiei beharrezko prestakuntza ematea kopiagintzako eta dokumentu-kudeaketako zerbitzu osagarrietako lanak egiteko.

Adierazleak:

Hautatutako ikastetxeen kopurua: 5 ikastetxe itundu eta 5 ikastetxe publiko.

Prestakuntza jaso duten pertsonen kopurua: 10

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024	2025	2026
4	80.000 €	120.000€	120.000€

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Desgaitasun intelektuala duten pertsonen aldeko elkartea.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Aniztasuna eta Hezkuntza Inklusioa**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 2:**

Adimen-desgaitasuna duten pertsonen laneratzea eta gizarteratzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 2:

Adimen-desgaitasuna duten pertsonak ikastetxeetan laneratzea eta gizarteratzea.

Organoa:

Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza

Programa:

4222 Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa

Helburuak:

Gipuzkoako itunpeko ikastetxeetan kopiagintzako eta dokumentu-kudeaketako zerbitzu osagarriak emateko desgaitasun intelektuala duten pertsonak kontratatzea.

Ekintzak:

Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzako 5 itunpeko ikastetxeetan kopiagintzako eta dokumentu-kudeaketako zerbitzu osagarriak.

Adierazleak:

Kontratatutako persona kopurua: 15

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024	2025	2026
4	120.000 €	180.000 €	180.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

ATZEGIk hautatutako Gipuzkoako itunpeko 5 ikastetxeak.

Emateko prozedura:

Gobernu Kontseiluaren akordioa.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Aniztasuna eta Hezkuntza Inklusioa**Epea:** 2024-2025**Helburu Estrategikoa 3:**

Ikasle ijitoen eskolatzea hobetzea, eskola inklusiboaren esparruan. Eskola horrek desberdintasunak gainditzeko ahalegina egiten du, eta ikasleen premia pertsonalak kontuan hartzen ditu.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Dirulaguntza izenduna Gao Lacho Drom-i, Araban ikasle ijitoekin jarduerak egiten dituzten erakunde ijitoei eusteko.

Organoa:

Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza

Programa:

4225 Hezkuntza Berritzea eta Irakasleak Etengabe Prestatzea

Helburuak:

Arabako ikasle ijitoen eskola-arrakastan eta bizikidetzaren hobekuntzan eragiten duten jarduerak sustatzea.

Ekintzak:

Ikasle ijitoekin errefortzu-jarduerak garatzea.

Adierazleak:

Ikastetxe kopurua: 13

Artatutako gutxieneko ikasle-kopurua: 210

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024	2025
4	16.363 €	65.452 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Ikasle ijitoekin errefortzu-jarduerak egiteko irabazi-asmorik gabeko erakundeak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Aniztasuna eta Hezkuntza Inklusioa**Epea:** 2024-2025**Helburu Estrategikoa 3:**

Ikasle ijitoen eskolatzea hobetzea, eskola inklusiboaren esparruan. Eskola horrek desberdintasunak gainditzeko ahalegina egiten du, eta ikasleen premia pertsonalak kontuan hartzen ditu.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 2:

Dirulaguntza izenduna Kale Dor Kayikori, Gipuzkoan ikasle ijitoekin jarduerak egiten dituzten erakunde ijitoei eusteko.

Organoa:

Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza

Programa:

4225 Hezkuntza Berritzea eta Irakasleak Etengabe Prestatzea

Helburuak:

Gipuzkoako ikasle ijitoen eskola-arrakastan eta bizikidetzaren hobekuntzan eragiten duten jarduerak sustatzea.

Ekintzak:

Ikasle ijitoekin errefortzu-jarduerak garatzea.

Adierazleak:

Ikastetxe kopurua: 19

Artatutako gutxieneko ikasle-kopurua: 244

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024	2025
4	19.045 €	76.177 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Ikasle ijitoekin errefortzu-jarduerak egiteko irabazi-asmorik gabeko erakundeak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Aniztasuna eta Hezkuntza Inklusioa**Epea:** 2024-2025**Helburu Estrategikoa 3:**

Ikasle ijitoen eskolatzeari hobetzea, eskola inklusiboaren esparruan. Eskola horrek desberdintasunak gainditzeko ahalegina egiten du, eta ikasleen premia pertsonalak kontuan hartzen ditu.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 3:

Dirulaguntza izenduna Kale Dor Kayikori, Bizkaian ikasle ijitoekin jarduerak egiten dituzten erakunde ijitoei eusteko.

Organoa:

Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza

Programa:

4225 Hezkuntza Berritzea eta Irakasleak Etengabe Prestatzea

Helburuak:

Bizkaiko ikasle ijitoen eskola-arrakastan eta bizikidetzaren hobekuntzan eragiten duten jarduerak sustatzea.

Ekintzak:

Ikasle ijitoekin errefortzu-jarduerak garatzea.

Adierazleak:

Ikastetxe kopurua: 15

Artatutako gutxieneko ikasle-kopurua: 400

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024	2025
4	30.886 €	123.542 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Ikasle ijitoekin errefortzu-jarduerak egiteko irabazi-asmorik gabeko erakundeak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Aniztasuna eta Hezkuntza Inklusioa**Epea:** 2024-2025**Helburu Estrategikoa 3:**

Ikasle ijitoen eskolatzeari hobetzea, eskola inklusiboaren esparruan. Eskola horrek desberdintasunak gainditzeko ahalegina egiten du, eta ikasleen premia pertsonalak kontuan hartzen ditu.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 4:

Dirulaguntza izenduna Amugeri, Bizkaian ikasle ijitoekin jarduerak egiten dituzten erakunde ijitoei eusteko.

Organoa:

Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza

Programa:

4225 Hezkuntza Berritzea eta Irakasleak Etengabe Prestatzea

Helburuak:

Bizkaiko ikasle ijitoen eskola-arrakastan eta bizikidetzaren hobekuntzan eragiten duten jarduerak sustatzea.

Ekintzak:

Ikasle ijitoekin errefortzu-jarduerak garatzea.

Adierazleak:

Ikastetxe kopurua: 12

Artatutako gutxieneko ikasle-kopurua: 400

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024	2025
4	30.886 €	123.542 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Ikasle ijitoekin errefortzu-jarduerak egiteko irabazi-asmorik gabeko erakundeak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Aniztasuna eta Hezkuntza Inklusioa**Epea:** 2024-2025**Helburu Estrategikoa 4:**

Laguntza eta errefortzuko programen bitartez ikasle guztien eskola-arrakasta sustatzea, eta aniztasunari aurre egiteko neurriak bultzatzea, eskola goiz uzten duen ikasle-kopurua murrizteko.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Dirulaguntza izenduna IZAN Fundazioari eskolatze osagarriko programak garatzeko.

Organoa:

Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza

Programa:

4222 Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa

Helburuak:

1. Nerabearen garapen biopsikosozial egokia sustatzea.
2. Jokabide arriskutsuak murriztea/saihestea.
3. Familiaren eta nerabearen arteko elkarrizketa eta harremanaren hobekuntza sustatzea.

Ekintzak:

- Garapen pertsonalerako tailerrak
- Oinarrizko prestakuntza arloa
- Tutoretza- eta orientazio-arloa
- Familiari zuzendutako jarduerak

Adierazleak:

Programen kopurua: 1

Parte hartzen duten ikasleen kopurua: 15 gehienez

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024	2025
4	101.000 €	67.333 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Irabazi-asmorik gabeko erakundeak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Aniztasuna eta Hezkuntza Inklusioa**Epea:** 2024-2025**Helburu Estrategikoa 4:**

Laguntza eta errefortzuko programen bitartez ikasle guztien eskola-arrakasta sustatzea, eta aniztasunari aurre egiteko neurriak bultzatzea, eskola goiz uzten duen ikasle-kopurua murrizteko.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 2:

Dirulaguntza izenduna Eibarko Udalari, Oinarrizko Lanbide Heziketa Udal Institutuan eskolatze osagarriko programak garatzeko.

Organoa:

Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza

Programa:

4222 Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa

Helburuak:

1. Nerabearen garapen biopsikosozial egokia sustatzea.
2. Jokabide arriskutsuak murriztea/saihestea.
3. Familiaren eta nerabearen arteko elkarrizketa eta harremanaren hobekuntza sustatzea.

Ekintzak:

- Garapen pertsonalerako tailerrak
- Oinarrizko prestakuntza arloa
- Tutoretza- eta orientazio-arloa
- Familiari zuzendutako jarduerak

Adierazleak:

Programen kopurua.1

Parte hartzen duten ikasleen kopurua: 15 gehienez

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024	2025
4	101.000 €	67.333 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Udalak, mankomunitateak edo horiek sortutako erakundeak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Aniztasuna eta Hezkuntza Inklusioa**Epea:** 2024-2025**Helburu Estrategikoa 4:**

Laguntza eta errefortzuko programen bitartez ikasle guztien eskola-arrakasta sustatzea, eta aniztasunari aurre egiteko neurriak bultzatzea, eskola goiz uzten duen ikasle-kopurua murrizteko.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 3:

Dirulaguntza izenduna Andoaingo Udalari, Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutuan eskolatze osagarriko programak garatzeko.

Organoa:

Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza

Programa:

4222 Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa

Helburuak:

1. Nerabearen garapen biopsikosozial egokia sustatzea.
2. Jokabide arriskutsuak murriztea/saihestea.
3. Familiaren eta nerabearen arteko elkarrizketa eta harremanaren hobekuntza sustatzea.

Ekintzak:

- Garapen pertsonalerako tailerrak.
- Oinarrizko prestakuntza arloa.
- Tutoretza- eta orientazio-arloa.
- Familiari zuzendutako jarduerak.

Adierazleak:

Programen kopurua: 1

Parte hartzen duten ikasleen kopurua: 15 (gehienez)

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2023	2024
4	101.000 €	67.333 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Udalak, mankomunitateak edo horiek sortutako erakundeak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Aniztasuna eta Hezkuntza Inklusioa**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 5:**

12-18 tartean eskola-arrakasta sustatzea, gaitasunak garatzen eta ezagutzak eskuratzen lagunduz, bai ikasketekin jarraitzeko, bai bizitza aktiboan sartzeko.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Dirulaguntza izenduna Bilboko Udalari Curriculum-gabeziak eta gabezia pertsonalak dituzten eta eskola-absentismoa izateko arriskuan dauden nerabeei zuzendutako tailerrak garatzeko.

Organoa:

Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza

Programa:

4222 Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa

Helburuak:

- 12-18 bitarteko biztanleria guztia eskolatzea, bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, bai Batxilergoan edo Lanbide Heziketan, ahalik eta abandonu-tasarik txikiena lortuz.
- Gaitasunak garatzen eta ezagutzak eskuratzen laguntzea, unibertsalak zein testuinguru geografiko, sozioekonomiko eta kulturalean sustraituak, irteerako gutxieneko profila lortzeko, goi-mailako ikasketekin jarraitu ahal izateko eta bizitza aktiboan sartzeko.
- Nerabeei hezkuntza-erantzun koherente eta egokia ematea, beren autonomia pertsonala, ikasketak eta erantzukizunak garatzeko eta finkatzeko.

Ekintzak:

Bilboko Udalarekin hutsune pertsonalak, currikularrak eta eskola absentismo arrisku handia duten nerabeei zuzendutako gizarte hezkuntzako tailerretan kolaboratzea.

Adierazleak:

Partehartzaileak: 125

Tailerretan parte hartzen duten ikastetxekopurua: 2

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	30.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Bilboko ikastetxeetako Bigarren Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako azken zikloko ikasleak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Aniztasuna eta Hezkuntza Inklusioa**Epea:** 2024-2025**Helburu Estrategikoa 6:**

Eskolatzea eta hezkuntza-erantzuna sustatzea inoren kargura ez dauden adingabe atzerritarren kolektiboari (IKEDAA).

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Dirulaguntza izenduna CPES Diego Berguinces-Otxarkoaga ikastetxeari, inoren kargura ez dauden ikasle etorkinei lehen hezkuntza-harrera emateko programa (IKEDAA) finantzatzeko.

Organoa:

Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza

Programa:

4222 Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa

Helburuak:

Inoren kargura ez dauden adingabeak lan-munduan ahalik eta titulazio handienarekin sar daitezen edo hurrengo ikasketetan jarrai dezaten bultzatzea.

Ekintzak:

Inoren kargura ez dauden adingabe etorkinei arreta emateko programa.

Adierazleak:

Ikasleen kopurua: 100

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024	2025
4	227.120 €	368.220 €

Zein sektoreri dago zuzenduta eta emateko prozedura:

Bizkaiko bidaidetik gabeko adingabe ikasle etorkinak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Aniztasuna eta Hezkuntza Inklusioa**Epea:** 2024-2025**Helburu Estrategikoa 7:**

Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleei eskatzen zaien hezkuntza-erantzuna ahalbidetzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Dirulaguntza izenduna Gregorio Ybarra Prosordos Elkarteari, entzumen-desgaitasunari lotutako hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleei hezkuntza-erantzuna emateko logopedia-jarduerak finantzatzeko.

Organoa:

Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza

Programa:

4221 Haur eta Lehen Hezkuntza

Helburuak:

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei erantzutea.

Ekintzak:

Beharrezko baliabideak finantzatzea, entzumeneko eta hizkuntzako irakasle ibiltariak barne, ahozko gaikuntzarako eta komunikazioko entzumen-oztopoak kentzeko zeinu-mintzaira eta logopedak erabiltzen dituztenak.

Adierazleak:

Lagundutako erakundeen kopurua: 1

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024	2025
4	71.950 €	158.090 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Bizkaian ikasle gorra gizarteratzen, laneratzen eta hezten laguntzea helburu soziala duten onura publikoko irabazi-asmorik gabeko erakundeak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Aniztasuna eta Hezkuntza Inklusioa**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 7:**

Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleei eskatzen zaien hezkuntza-erantzuna ahalbidetzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 2:

Dirulaguntza izenduna desgaitasun intelektuala duten pertsonen aldeko erakundeen Euskal Elkarteari (Fevas Plena Inclusión Euskadi).

Organoa:

Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza

Programa:

4221 Haur eta Lehen Hezkuntza

Helburuak:

1. Familien sentimendua sakatzea eta bideratzea, premiak hautematea, zailtasunetan bitartekari izatea eta eskolatzeko-prozesuetan laguntzea.
2. Gizartea, oro har, eta hezkuntza-komunitatea, bereziki, sentsibilizatzea.
3. Hezkuntza-sistemari baliabideak ematea, elkarteek dituzten baliabide propioetatik.

Ekintzak:

- Adimen-urritasuna duten pertsonen hezkuntzari buruzko kontzeptu, zerbitzu eta esperientziei buruzko "IN" albistegiaren ale bat argitaratzea eta zabaltzea.
- Hezkuntza inklusiboari buruzko jardunaldia.

Adierazleak:

Lagundutako erakundeen kopurua: 1

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	12.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Aniztasuna eta Hezkuntza Inklusioa**Epea:** 2024-2025**Helburu Estrategikoa 7:**

Hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleei eskatzen zaien hezkuntza-erantzuna ahalbidetzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 3:

Zuzeneko dirulaguntza zeinu-hizkuntzako interpretea kontratatu behar duten itunpeko ikastetxe pribatuei, entzumen-desgaitasuna duten ikasleei hezkuntza-erantzuna emateko.

Organoa:

Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza

Programa:

4221 Haur eta Lehen Hezkuntza

Helburuak:

HLBPko ikasleen beharrei erantzuteko gaitasunari eustea ekintza-plan pertsonalizatu baten bidez, curriculumera eta hezkuntza esanguratsu, ekitatibo eta kalitatezkoa iristea errazteko eta, horrela, gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko.

Ekintzak:

Entzumen-desgaitasuna duten ikasleei arreta emateko itunpeko 3 ikastetxetan 3 ZHI kontratatzeako gastuak ordaintzea.

Adierazleak:

Lanpostu-kopurua (batez beste, 26 ordu astean): 3

Zentro kopurua: 3

Onuradun diren ikasleen kopurua: 3

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024	2025
4	100.000 €	100.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Zeinu-mintzairaren interpretea kontratatu behar duten itunpeko ikastetxe pribatuak.

Emateko prozedura:

Gobernu Kontseiluaren akordioa.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Aniztasuna eta Hezkuntza Inklusioa**Epea:** 2024-2025**Helburu Estrategikoa 8:**

Desgaitasuna duten hezkuntza-premia berezietako ikasleen eskola-garraioa finantzatzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Desgaitasunari lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako Eskola Garraiorako Banakako Dirulaguntzak, dagokien ikastetxe publikoan eskolatuta, edo Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzek esleitutako ikastetxe publiko edo pribatu itundu batean eskolatuta, departamentuaren eskola-garraioa erabili ezin badute.

Organoa:

Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza

Programa:

4231 Hezkuntza Sustapena

Helburuak:

Desgaitasuna duten hezkuntza-premia berezietako ikasleen eskola-garraioa finantzatzea.

Ekintzak:

Hezkuntza Sailak antolatutako zerbitzuak erabili ezin dituzten ikasle desgaituentzat garraiorako banan-banako dirulaguntzak.

Adierazleak:

Ikasleen kopurua: 1.255
Ikastetxeen kopurua: 178
Publikoak: 135
Itunpekoak: 43

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024	2025
4	4.522.000 €	1.938.000 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Ezgaitasun fisiko, psikiko edo sentsoriala duten eta ohiko eskola-garraioa erabili ezin duten ikasleak, ikastetxe publikoetan edo, salbuespen gisa, itunpeko ikastetxe pribatuetan eskolatuta daudenak, Hezkuntza Sailak esleituta.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Hezkuntza**Zuzendaritza:** Aniztasuna eta Hezkuntza Inklusioa**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 9:**

Bizkaiko Lurralde Historikoan kalteberatasun-egoeran dauden eta gizarteratzeko, laneratzeko edo hezteko arazoak dituzten haurrak, nerabeak eta gazteak gizarte-eta hezkuntza-arloan sortzen ari diren premien aurrean prebenitzea eta esku hartzea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Dirulaguntza izenduna Bizkaiko Lurralde Historikoko Osabidezko Hezkuntzako eta Lanerako Prestakuntzako Partzuergoari, foru-aldundiekin lankidetzan.

Organoa:

Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritza

Programa:

4222 Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa

Helburuak:

Haur, nerabe eta gazteei berriazko ohiturak eta gaitasunak ematea, orain eta etorkizunean testuingurura egokitzeko, ingurune normalizatueta sartzeko eta beren bizi-proiektuari aurre egiteko ahalik eta autonomia handiena garatzeko.

Ekintzak:

- Egoera ahulean dauden kolektiboari arreta emateari, eskolatzeko laguntzei eta gizarte-zailtasuna duten gazteei orientazio profesionala emateko programa espezifikoak abian jartzeari buruzko programak garatzea.
- Biztanleria sentibilizatzeko kanpainak, etorkizuneko profesionalen prestakuntzan esku hartzea, eskolagabetzeari eta absentismoari erantzuteko neurriak ahaztu gabe.

Adierazleak:

Arreta jasotzen duten gazteen kopurua: 188

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024
4	479.890 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Bizkaiko lurralde historikoetako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleria.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Lanbide Heziketa**Zuzendaritza:** Plangintza eta Antolaketa**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 1:**

Lanbide Heziketako titulu bat lortzeko aukera erraztea.

Dirulaguntza ildo edo lerroa 1:

Lanbide Heziketako irakaskuntzak ematen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuentzako deialdia, eskaintza modular malgua emateko dirulaguntza eskatzeko.

Organoa:

Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritza

Programa:

4222 Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa

Helburuak:

- Bizialdi osoko ikaskuntza bultzatzea personal, social eta profesional garapenerako bide bezala, eta baita norberen poztasunerako jakintzaren gizartean parte hartzeagatik eta aktibo sentitzeagatik.
- Pertsona guztien esku jarri nahi dira berrikuntza teknologikoaren eta ekoizteko moduen aldaketen erronkei aurre egiteko beharrezko baliabideak; baita gizartean modu aktiboan parte hartzeko beharrezkoak diren baliabideak ere, azken hauek, edozein ezagutza esparrutan bizi osorako erabilgarria izango den ikaskuntza garatuko duten jarduketan bidez.

Ekintzak:

Eskaintza modular malgu bat egitea kualifikazio edo birkualifikazio azkarra behar duten pertsonentzat, laneratzeko aukerak areagotzeko.

Adierazleak:

Parte-hartzaileen kopurua: 300

Aurrekontu-konpromisoak:

Kapitulua	2024	2025
4	289.300 €	286.700 €

Zein sektoreri dago zuzenduta:

Lanbide Heziketako heziketa zikloak emateko baimena duten itunpeko ikastetxe pribatuak.

Emateko prozedura:

Agindua.

**ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA DIRULAGUNTZEN ILDOAK****Sailburuordetza:** Lanbide Heziketa**Zuzendaritza:** Plangintza eta Antolaketa**Epea:** 2024**Helburu Estrategikoa 1:**

